



● GURPILA

Gizakiaren asmakizunik garrantzitsuenetariko bat gurpila da zalantzarik gabe, naturan ez baitago zuzenean bere irudikoa den ezer. Gurpila eta eltzegilearen tornua, garai berean asmatu zirela uste da, hots, K.a. 4000. urtea inguruan. Gurpila ardatz baten inguruan biratzen den pieza zirkularra da.




Antzinaroan gurpilak izan zituen hiru erabilerak gizakiaren historia erabat eraldatu zuen. Hasieran ehotarria asmatu zen eta horrela gari edo arto aleak modu errazean eta kantitate handiagoan ehotzen zituzten. Bestalde, eltzegilearen tornuari esker buztinezko ontziak arinago eta meheagoak egitea lortu zen, tresna hori gaur egun ere erabiltzen da.



Sumeriarrek K.a. 3000. urtean gurdia erabiltzen zuten.

Gurpilaren hirugarren erabilera eta garrantzitsuena garraioa izan da. Jatorriz enborrez egindako gurpilak ziren, geroago estuagoak bilakatu ziren eta ardatz batez lotuak izan zirenean garraioari hasiera eman zitzaion.

Gurpil desberdinak



Gurpilak garapen izugarria izan du. Lan ezberdinak egiteko hortzak, palak edo azal ezberdinak gehitu zaizkio. Milaka makina konplexutan aurki ditzakegu hala nola, errotan, hegazkinetan, erlojuetan, garabietan, ibilgailuetan.